larunbata, 2008ko urriaren 11 berria

# Denbora-

## 1 Kopiatu laukiz lauki

Lotara joateko prest dago Mikel. Amak argazki bat atera dio.

Marraztuko al duzu Mikel pijama eta guzti?





## 2 Aurkitu irudian

Irteera dibertigarri bat egin dute haurrek. Hauexek dira erreka jaisteko erabili dituzten txalupak. Hiru mota berdinak dira. Zein?








## 3 Osatu esaldiak

Txirula jotzen hasten den aldiro, hizkiak ateratzen dira Rabin aztiaren saskitik.

Ea zenbat hitz osatzen dituzuen!

Erantzunak: **4.-** Txirri-pailazoa, Elena Irureta-aktorea, Klaudio Landa-telebista aurkezlea eta Afrika Bibang-abeslaria.

# -pasak




## 4 Sagu Jakintsua

Ezagunak egiten al zaizkizue pertsonaia hauen izenak?

Asmatuko al zenukete zein den euren lanbidea?




## 5 Labirintoa

Magikoa bezain alferra da Merlinen arkatza. Orain ere ihes egin dio, lanik ez duelako egin nahi.

Aurkitu arkatzera iristeko bidea.

## Pinguino lasterketa!

Korrika egiten abila izateak ez du ziurtatzen lasterketa guztiak irabaztea. Zer moduz moldatuko zinatekete pinguinoek bezala korrika?

**1** Jolasean hasi aurretik, irteera puntua eta helmuga marraztu behar dira lurrean. Irteeratik 10 bat metrora egon behar du helmugak.

**2** Irteera lerrotik atzera jarriko dira jokalari guztiak.

**3** Galtzen gainetik galtza motzak jantziko dituzte jokalariek.



**4** Lasterketari hasiera emango dion soinua aditu orduko, galtza motzak orkatileraino jaitsi behar dituzte jokalari guztiek.

**5** Inork estropezu egiten badu edo inor lurrera erortzen bada, ez du zigorrik jasoko.

**6** Ea nor iristen den helmugara lehen.